

ARGIA IKUSARAZTEN DUEN IRUDIA 2020KO MENDIFILMERAKO: “INTO THE LIGHT”

bbk
mendi film
bilbao · bizkaia

4-13 december 2020

13. NAZIOARTEKO MENDIKO ZINEMALDIA
13^o FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE MONTAÑA
13^o INTERNATIONAL MOUNTAIN FILM FESTIVAL

“Into The Light” © Santhi Bertonecelj, CVCEPHOTO 2020



Sandi Bertonecelj argazkilari esloveniarraren “Into the Light” da BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia zinemaldiko aurtengo irudi ofiziala. Club Vasco de Camping Elkartearen CVCEPHOTO Lehiaketan irabazi du sari hori, beraz Mendifilmeko irudiaren oinarria izango da.

Kanin mendian, Juliotar Alpeetako mendikatean, Eslovenia eta Italiako mugan hartutako argazkia da. Esloveniar isuriko maldetan, eskiatzailea gora ari da, zuzen eta irmo, mendi gainetik indarrean ageri den eguzki argia jomuga balu bezala. Energia baikorrez betetako meza du argazkiak: “Mendian, elur berritan, norbere arrastoa zabaltzeko aukerak ez dauka parekorik. Ez zaitetz lehen ere egindako bideetan tematu, bila ezazu bide berri bat...”, diosku egileak.

Sandi Bertonecelj abentura eta paisaia argazkilari profesionala da. Oinez, eskietan nahiz bizikletaz ibili ohi da argazki ehizan. Sortzen dituen irudien bidez, ikusleak inspiratu nahi ditu, eta kanpora irtearazi, norberak bere abenturaren bila jo dezan. Kranjen, Eslovenian, bizi da.

Jabier Baraiazarra Mendifilmeko zuzendariak, hala goraiatu du “Into the Light” argazkia: “Bizi dugun garai honetan, indar itzela duen irudia da, zuzena eta itxaropen energiaz betea. Onartu behar dut, gainera, pertsonalki zuri-beltzeko argazkigintzak asko erakartzen nauela, eta kasu honetan osagaietako bakoitza areago azpimarratzen laguntzen du: argia, elurra, mendiko eskiatzailea, itzalak... Espero dugu Mendizaleek gustuko izatea”.

Laugarren urtez deitu da Mendi Film Kartela Saria CVCEPHOTO mendiko jardueren nazioarteko argazkilaritza lehiaketaren baitan. Sandi Bertonecelj-i 700€ko diru saria dagokio. Iaz ere CVCEPHOTO-n Ohorezko Aipamena irabazi zuen “Powder Earthquake” argazkiarekin. Aurtengo CVCEPHOTO Sari banaketa ekitaldia, 6. ediziokoa, maiatza hondarrean egitekoa zen Donostian, baina coronavirus krisiaren aurrean hartu beharreko neurriei kasu eginez, ezin izan zen burutu, eta BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia zinemaldiaren 13. edizioko egitarauan gehituko da. Beraz, Bilbon urtero egin ohi den CVCEPHOTO-ren erakusketen atalaz batera, sari banaketa eta hitzaldiak ere egingo dira.